

Euria egitekotan, astiroago gidatu, mesedez.



Euskararen Erakundeak
Euskararen Erakundeak



* Euria egitekotan, astiroago gidatu, mesedez.

-t(z)ekotan \neq **-(e)z gero**

Zein kasutan erabil daiteke -T(Z)EKOTAN atzizkia?

1) Asmoa adierazteko:

- Goizeko zortzietako trena **hartzekotan**, zazpi eta erdietarako geltokian egon beharko duzu.

Horren bidez, zera adierazten dugu:

- Goizeko zortzietako trena hartzeko asmo(t)an bazabiltza...
- Goizeko zortzietako trena hartzeko asmoa baduzu...
- Goizeko zortzietako trena hartu nahi baduzu...

(?) Euria egiteko asmo(t)an badabil...

(?) Euria egiteko asmoa badu...

(?) Euria egin nahi badu...



Zein kasutan erabil daiteke -T(Z)EKOTAN atzizkia?

2) Bete beharreko baldintza adierazteko:

- Lan egiteari utziko diot, baina Gabonetako loteria **egokitze**kotan.

Horren bidez, zera adierazten dugu:

- Lan egiteari utziko diot, baina Gabonetako loteria egokitu behar zait; bestela, ez.

(?) Euria egitekotan, astiro gidatu; bestela, ez.

Zein kasutan erabil daiteke -T(Z)EKOTAN atzizkia?

3) Betetzea zalantzazkoa den baldintza adierazteko:

- (...) ukitu ere ez dituzue egin behar; nik esandakoa egiten ez baduzue, ontzia txiki-txiki egingo zaizue, eta, **itzultzekotan**, heu bakarrik eta berandu iritsiko haiz (...)

(*Ulises; Homeroren Odisearen bertsioa, Juan Kruz Igerabidek euskaratua*)

Horren bidez, zera adierazten dugu:

- (...) ontzia txiki-txiki egingo zaizue, eta heu bakarrik eta berandu iritsiko haiz (itzultzen bahaiz, jakina).



Beraz:

Euria **eginez gero**, astiroago gidatu, mesedez.

Euria **egiten badu**, astiroago gidatu, mesedez.



Bestalde, aditzekin batera ere erabiltzen da
-T(Z)EKOTAN atzizkia, asmoa adierazteko.

-t(z)ekotan + aditza

- Etxera goiz heltzekotan naiz.
- Auto berria erostekotan dabil.
- Lehia amaitzean hara joatekotan geratu ginen.

